

**LEHEN SEKTOREA ALDATZEN EUSKAL HERRIAN**

Edozein gizarte osasuntsu aldatzen ari da etengabe. Ala ere, abagune historiko batzuk beste batzuk baino erabakigarriagoak izaten dira gizarteen bilakaeran. Bereziki garrantzitsuak izaten dira gizartei tradizioz loturik egon diren eredu sozio-ekonomikoak zalantzan jarri, eta aldatzen hasten diren uneak. Izan ere, oreka sozio-ekonomiko berria lortu arteko iragapen momentuetan, gizarteek erabaki zehatzak hartu eta tradizioz jasotako ohitura eta portaera asko aldatu behar izaten dituzte egoera berria egokitzeko; eta horrek krisi edo-eta nolabaiteko egonezin sentazioa sortzen du gizarte horretako kideen artean.

Gure ustez, horrelako une historikoan murgildurik dago, gaur egun, Euskal Herria; hain justu ere, XX. mendean ekonomiaren ikuspuntutik nagusitu diren ereduak errotik aldatzen, eta tradizioz jaso ditugun balore, ohitura eta portaera sozio-ekonomiko asko zalantzan daudelako.

Aldaketa horien arteko garrantzitsuenetarikoa da lehen sektorearen baitan gertatzen ari dena.

**Historia ekonomiko apur bat**

Administratiboki Frantzia eta Espainiaren artean erdibitua egonik, bi estatuon historia eta beharrek betidanik izan dute eragin handia Euskal Herriko ekonomiaren garapenean. Bizkaia eta Gipuzkoa Espainiako industrializazioarekin batera

industrializatu ziren XIX. mendean, eta sektore ekonomiko honen indar handia izan du XX. mendean zehar.

Araba eta Nafarroan industrializazioa geroago iritsi zen eta, ohituraz, lehen sektoreak (abeltzaintza, nekazaritza eta basogintzak) industriak baino garrantzi handiagoa izan du.

Iparraldean industrializazioa ez zen sustraitu Frantziako industrializazioa gertatu zenean; ondorioz, abeltzaintza, nekazaritza eta arrantzak garrantzi handiagoa izan dute.

Hegoaldeak Iparraldeak baino garapen industrial handiagoa izan duela eta, ondorioz, zonalde bi hauen artean desberdintasun ekonomiko azpimarragarriak daudela onartuta ere, hirugarren sektorea da egun, eta alde handiz gainera, nagusi Euskal Herri osoan. Oro har, lehen sektoretik populazio aktiboaren %5-6 inguru baino ez da hizi; bigarren sektorean (eraikuntza barne) gutxi gora-behera populazio aktiboaren %38 ari da, eta zerbitzuen sektorean %56 inguru.

### **Lehen sektorearen egoera**

Lehen sektoreak Euskal Herriaren ekonomian duen garrantzia txikitzen joan da apurka-apurka. Bereziki arrantzan eta nekazaritzan lan egiten dutenen kopurua asko murrizteaz gain, bi arlo ekonomiko hauek Barne Produktu Gordinean (BPG) zuten pisua gutxitzen joan da.

**Arrantza** Euskal Herriko kostaldean ekonomiaren bultzatzaile nagusienetakoa izan bada ere, azken aldion gauzak beste norabide bat hartu dute. Harrapaketen jaitsierak, lehengo arrantzaleen seme-alabek bizi-baldintza hobetoak nahi izateak eta kanpotik sartzen den arrainak sortzen duen lehiakortasun zuzengabeak arrantzatik lortutako irabazien murrizketa eta, beraz, huntzi eta arrantzaleen kopuruak gutxitzea ekarri du. Kontuan hartzekoa da inguruko herrietako arrantzaleek Euskal Herrikoek baino teknika erasokorragoak (bolantak, sare pelajikoak...) darabiltzatela, kala eta merkatu berberetan lehia

egiteko. Euskal arrantzaleek lan gogorragoa egin eta naturarekin erasokorrak ez diren teknikak erabiliz, baldintza kaxkarra-goetan lehiatzen ari dira arrain merkatuetan.

Gainera, Europatik lagundu baino gehiago oztopoak jar-tzen direla ikusten dugu. Besteak beste, gogoratzekoak dira Europako Batzordeak babestu egiten dituela bolantei buruzko Europako araudia betetzen ez dituzten huntziak ez diela erantzuten hegaluzea harrapatzeko murrizpenei buruz IC-CAT-ek egindako gomendioari, urteetan zenbait espezien (antxo, batik bat) harrapaketaren gainean daraman kudea-keta (aplikatzen duen TAC-aren bidez) ez dela batere arrazoizkoa (Portugalek Frantziari pasatu dio Bizkaiko Golkoan arrantzan egiteko kuota eta ez du inork ezer esan) eta, oro har, Europako Batasuneko estatu eta erakundeek ez dutela arrantzaren inguruan behar bezalako kontrol politikarik egi-ten. Horrek guztiak Euskal Herrian dauden 2.000 arrantzale-en egoera beltza dela, eta aurrerantzean are eta beltzagoa izango dela esan gura du. Euskal Herriko kostaldeetako he-rrietako armarrietan baleak agertzea belaunaldi berriek oso ondo ulertuko ez duten bitxikeria bihurtzeko arrisku handia dago.

Gauzak ez daude hobeto **nekazaritzan**. Azken urteotan baserritarren kopurua asko murrizteaz gain, datuek erakusten dute aurrerantzean ere lanpostu gehiago galduko direla.

Eustat Euskal Estatistika Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailak egindako 1999ko Nekazaritza Erroldaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 40.016 nekazaritza ustiakuntza daude. Horietatik %37k abereak dituzte eta %63 soilik nekazaritza edota basogintzan aritzen dira.

Herrialdeka, Bizkaiak du ustiakuntza kopuru handiena, %51 hain zuzen ere; Gipuzkoak %31 eta Arabak %18. Dena den, Araban daude nekazaritzarako soilik erabiltzen diren ustiakun-tza kopuru handienak. Gipuzkoan, berriz, oreka dago bi ustia-kuntza moten artean (Egunkaria, 2000-7-28).

Dena dela, badirudi ustiakuntza kopurua murriztu egingo dela. Euskal Herriak ustiakuntza txikiak ditu (ustiakuntzen batez besteko neurria 15,3 hektareakoa da eta nekazaritzako azalera erabilgarriaren batez bestekoa 6,5 hektareakoa. Ustiakuntza handienak arabarrak dira eta txikienak gipuzkoarrak), mendi nekazaritzako eskualdea da, eta egun mundu mailan eta, zehazki, Europatik bultzatzen ari den nekazaritzak ustiakuntza handiak eskatzen ditu. Globalizazioak eta ekonomia neoliberalak lehentasuna ematen die kopuruari, produktuari eta elikagaien autohornikuntza hutsari, alde batera utziz kalitatea, ekoizlearen eskubide eta beharrak edo nekazaritzaren multifuntzionaltasuna. Ondorioz, produktibitate handia duten ustiakuntzak dira bakarrik errentagarriak eta erakundeetatik bultzatzen direnak, besteak aurrera egiteko arazoekin jarraitu edo ixtera behartuak daudelarik.

Ekonomia neoliberalaren eta lehiakortasunaren izenean, nekazarien diru-sarrerak ziurtatzeko sortu ziren garantiako prezio minimoen (interbentzio prezioen) jaitsiera eta inportazioen kontrako babesaren ahultzea bultzatzen ari dira Europatik. Jabier Erize-k aldizkari honetan bertan (230 zenb., 2000-2) idatzitako artikuluan zioen legez: *“Gogoratu dezagun zein diren nekazaritza politikaren azken erreformak (Agenda 2.000ren kontestuan egin dena) eduki dituen erabakien ardatzak: Garantiako prezio minimoen (‘interbentzio prezio’ deituak) jaitsiera handia batetik, eta inportazioen kontrako babesaren desmantelamendua bestetik. Esandako guztiaren emaitza nahikoa argi dago: nekazari produktuen gainbeheraldia ez da koiunturazko arazo bat, baizik eta sistemaren nahitaezko ondorio edo osagai bat, indarrean dauden joerak jarraituta gero eta gehiago eta larrikiago sofrituko duguna”*.

Hau guztia gutxi balitz, Europatik nekazaritzara bideratzen diren diru-laguntzek desoreka galantak dituztela ohartzen gara. Iñaki Gerenabarrenak (EAEko Nekazaritza eta Arrantza sailbu-

ru ohia) *Europako Nekazaritza* izenburuarekin *Egunkarian* (1999-03-20) argitaratu zuen artikuluan esaten zuen legez: “...indarrean jarraitzen du Nekazaritzako komisarioak berak, Mac Sharry irlandarrak, zabaldutako salaketa guztiz ezaguna; alegia, Nekazaritza Politika Komunaren laguntzaren %80a –haren aurrekontuak guztira EBkoaren %47 izaten jarraituko du– %20 nekazarik soilik jasotzen dutela”.

Azkenik, aipatu Europako nekazaritza fondoetatik datorren dirua kasu askotan ez dela benetako nekazarien eskuetara joaten. Trikimailu ugari erabiliz, asko dira nekazaritza laguntzeko bideratzen diren diruak hartzen dituzten kaletarrak.

Honen guztiaren ondorioa da, ohituraz nekazaritzari loturik egon diren herri, eskualde eta pertsonak sektore honetatik bizitzeko aukerarik gabe gelditzen ari direla, datozen belaunaldiari ere lan eta bizibide hau itxiz.

**Abelazkuntzari** dagokionez, eta lehen esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 40.016 nekazaritza ustiakuntzen %37k abereak dituzte.

Elkarte Autonomoan 10.705 ustiakuntzak behi-aziendak dituzte, 180.000 buru guztira. Ardi-azienda asko igo da Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere, eta txerri-aziendak beheranzko joera jarraitzen du. Azken urteotan hegaztien ustiakuntzak beheraka nabarmenena izan du, untxienak, aldiz, igoera handiena (Egunkaria, 2000-7-28).

*Behin eroen edo Behien Entzefalopatia Espongiformearen* auziak izugarritzko kaltea egin dio sektoreari; izan ere, kontsumitzaileen mesfidantza medio, hainbat hilabetez ganadurik ezin salduta egon ziren abeltzain eta baserritarrak.

Denetara zazpi kasu baino ez ziren izan Euskal Herrian (sei Nafarroan eta bat Gipuzkoan), baina sortutako iskanbila mediotikoa nahikoa izan zen salmentak gutxitzeko. Zehazki, arazo lehertu zenetik sei hilabete bitartean %70 jaitsi zen okelaren salmenta. Zorionez, salmentak igotzen joan dira, eta gaur egun

ia-ia krisia lehertu aurreko mailan daude: %90era edo gehiagora iritsi da (Egunkaria, 2001-12-2).

Behi eroen auzi honen arrazoi garrantzitsuena da Europako Batasunean 350 milioi pertsona dituen merkatua sortu dela, eta jende guztiari elikagai merkeak eskaini nahiak hauen kalitatea gutxitzea ekarri duela. Belgikako dioxinadun oilasko eta arrautzen arazoa, zein behi eroekin gertatutakoa, elikagaien ekoizpenean eredu industrialak ezartzearen ondorio zuzenak dira.

Batasuneko erakundeek sustatu duten lehiakortasun eta errentagarritasun irizpideen arabera abelazkuntzak elikagaien kalitatearen gaineko segurtasun eza eta kontsumo eta osasun arazoak eragin ditu. Eta txarragoa dena, asko eta merke ekoizteko joerak nekazari zein abeltzain txikiak ere ukitu ditu, eta enpresa handiekin lehiatzeko hauek bezala hasi dira lanean. Lehiakortasunaren izenean klenbuterola, antibiotikoak, estrogenoak, anabolizanteak eta abere irinak erabiltzen dituzte.

Euskal Herriko abeltzainek ekoizpen modu tradizionala erabili izan dituzte ohituraz, baina gaur egun indartzen ari diren ustiaketa sistemek zalantzan jarri dezakete ekoizpen modu hau. Kate sendoa dugu hemen, ekoizleen, hiltegien eta harakinen artean. Dena dela, eta behar bezalako politikak egiten ez badira, ekoizteko modu hau galtzeko arriskua dago. Kontuan hartu behar dugu Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban kontsumitzen den behi okelaren %40a baino ez dela bertan hazitakoa; eta labeldun haragia %15era besterik ez dela iristen.

**Basogintza** sektore garrantzitsua da Euskal Herrian. EAEn, adibidez, 14.835 lagunek lan egiten dute sektore horretan, 968 ustiakuntzatan (Egunkaria 99-9-23). Gainera, azken urteotan egurraren balioa asko handitu da, eta baso ustiakuntzak garai batean ekonomian zuen garrantzia berreskuratzen joan da. Honela, 1999. urtean Bizkaiko basogintzaren ekoizpenaren balioa 21.000 milioi pezetara iritsi zen, nekazaritza sektore osoaren produkzioaren %25a (Egunkaria, 1999-5-9).

Basoa diru iturri garrantzitsua da nekazari askorentzat, eta beraz, bultzatu beharreko arloa denik ezin ukatu. Ala ere, EH-NE-k salatu duen bezala, gero eta baso eta lur gehiago jabe handien esku gelditzen ari da (Aristegi, 2000-5-2). Izan ere, diru laguntza gehienak jabe handiengana joateaz gain (lehen aipatu bezala Europako Nekazaritza Politika Komunaren laguntzen %80a nekazarien %20ak soilik jasotzen dituzte), hain urri dugun lurrean baso-landaketak oso erraz baimentzen zaizkie. Horren ondorio larrienetarikoa da, ustiakuntza intentsiboak ugaritu egin daitezkeela, eta horrek ingurugiroarengan kalte izugarriak izan ditzakeela.

### **Zer egin etorkizunaren aurrean?**

Mendebaldeko herrialde aberats askotan bezala, trantsizio garaian gaude Euskal Herrian. Izan ere, orain dela gutxi arte behineneko garrantzia izan duten egitura, eredu eta portaera ekonomikoak zalantzan jarri dira, baina oraindik ez ditugu etorkizunean gure bizitza gidatuko duten oinarriak zehaztu. Iragana hiltzen eta, aldiz, datorkigun mundu berria deskubritu gabe dagoen une honetan, hartu beharreko erabaki edo-eta jarraitu beharreko bideei buruzko zalantza izugarriak sortzen zaizkigu.

Gauzak horrela, ezinbestekoa da dugun garapen ereduari buruz eta lehen sektoreak gure herrian izan behar duen garrantzi eta babesari buruz eztabaidatzea. Ez da aiantzi behar lehen sektorea multinazional handien eskuetan gelditzen bada, euren agintzen dituzten produktuak eta nahi dituzten salneurrietan erosi beharko ditugula, gure askatasun ekonomikoaren zati handi galduz.

Honekin batera, lehen sektoreari buruzko etorkizuneko plangintza orokorra egin behar da. Plan horrek euskal ikuspegi izan beharko luke nahiz eta, argi izan, zaila dela globalizazioaren ur handien aurka uger egitea. Batik bat, kontuan hartu beharko da nekazari eta arrantzaleen egoera ahula, euren es-

pezializazio, prestakuntza eta herrikuntzaren alde erabaki estrategikoak hartuz. Hori dena, tokian tokiko beharrian ekonomikoak aintzat hartu eta ingurugiroa errespetatuz.

Bestalde, herri txikiak suspertu eta bizitza emateko plan orokorra bultzatu behar da. Ez da ahantzi behar, Euskal Herrian barnealdeko udalerrri txikiak direla nekazaritzaren egoera ahularen ondorioak gehien pairatzen ari direnak. Nekazaritzan lan egiten dutenen ehunekoak jaisten, eta, aldiz, lantegi industrialik sortzen ez den heinean, bizi diren herrietan lan egiteko gero eta aukera gutxiago dituzte bertako biztanleak. Bada, ezer egiten ez bada, gerta daitekeena da sektore honen inguruan aritu diren herriak biztanleak galtzen eta, ondorioz, hiltzen joango direla.

*Patxi Juaristi*